

SEADen 43. URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, 2019ko otsailaren 27an, Saharar Herriak Saharar Estatuaren (Saharar Errepublikak Arabiar Demokratikoa – SEAD) 43. urteurrena ospatuko du.

43 urte dira Mendebaldeko Sahararen okupazioaren aurrean Herri Sahararrak borrokan dirauela, eta egoera irtenbiderik gabe jarraitzen du. Horrenbestez, lurralde okupatuetan zein Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetan bizi diren biztanleak haien giza eskubideak urratuta ikusten dituzte, okupaziopean edo errefuxiatuta bizitzera behartuta.

Testuinguru honetan, Nazio Batuek aurrerapausoak eman dituzte Fronte Polisarioa eta Marokoko Erreinuaren arteko elkarriketak desblokeatzeko, sei urte baino gehiagoz geldirik egon eta gero. Horrela, abenduan lehen elkarriketa erronda bat egin zen, eta beste berri bat espero da 2019ko lehen hiruhilekorako.

Era berean, Europar Batasuna eta Marokoren arteko arrantza akordioari dagokionez, Europako Justizia Auzitegiaren epaia berri on eta aurrerapauso garrantzitsu bezala ikusi izan da, bertan, hurrengo baieztatzen Delako: "Mendebaldeko Sahararen gaineko Marokoko Erreinuaren subiranotasuna ez dela errekonoiztzen, ez Europar Batasunaren partetik, ezta bere kide diren Estatuenetik ere, eta ezta, modu orokorrago batean, NBE-aren partez ere". Hala ere, eta epai horren aurka, 2019ko otsailaren 13an Europako Parlamentuak Europar Batasuna eta Marokoko Erreinuaren artean negoziatutako arrantza akordioa onartu du, bertan ilegalki okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldea barnebiltzen delarik.

Horregatik guztiatik, datozen tokiko, foru eta europako hauteskundeetara begira, deialdi egiten zaie partidu politikoei, prestatzen dituzten hauteskunde programetan saharar auzia barnebildu dezaten, honen dimentsio politiko, elkartasunezko, humanitario, eta kooperatiboan. Eta, aldi berean, hautetsiei eskatzen zaie Herri Sahararraren askatasunarekiko konpromisoa adierazi dezaten.

Era berean, erakunde bidaletan egiten den lana oso beharrezko izaten jarraitzen duela baloratzen da, horien bidez lurralde okupatutako eskubideen urraketa egiaztatzeko: saharar biztanleen adierazpen, bilera, elkartze eta manifestazio eskubideak, alegia. Eta baita Nazio Batuen ebazpenak bete eta giza eskubideak errespetatzeko eskatzeko.

Horregatik guztiatik:

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legítimo, NBEak eta nazioarteko komunitateak hala onartuta.

SALATZEN dugu, berriz ere, Mendebaldeko Sahararen dagoen marokoar okupazioa ilegala dela, eta ezin duela Herri Sahararraren autodeterminazio eta independentzia eskubidea urratuko duen ondorio juridiko edo politikorik izan.

EGIAZTATZEN DUGU Mendebaldeko Sahara lurralde autonomo bat dela, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, eta Marokoko Erreinuaren parte inoiz ere izan ez dela. Eta, horregatik, Mendebaldeko Saharako okupazio ilegala bertan behera geratzea aldarrikatzen dugu, eta baita Herri Sahararrak duen autodeterminazio eskubidea ere.

AINTZAKOTZAT HARTZEN DUGU Mendebaldeko Sahararen "de iure"-ko potentzia administratzailea Espainia dela adierazten duen Auzitegi Nazionalaren Autoa.

EXIJITZEN DIOGU Marokoko Erreinuari saharar preso politiko eta kontzientziazkoak berehala askatu ditzan, eta horrek kontrolatzen dituen kartzeletan giza eskubideen urraketak amaitu daitezen, presoen osasun fisiko eta psikikoa bermatuz. Aldi berean, familiei elkartasuna adierazten diegu.

SALATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan Marokoko Erreinuaren eskutik egiten ari den errekurtso naturalen bidegabeko ustiaketa, eta lurralde horretan lan egiten duten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta saharar biztanleen eskubideak errespetatzea eskatzen diegu. Interesa dutenei (enpresak eta herrialdeak) Herri Sahararraren ordezkari zilegiarekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

GOGORARAZTEN DIEGU erodiputatuei, Marokorekin negoziatutako arrantza akordioaren alde Europako Parlamentuan otsailaren 13an eginiko bozketa, zeinek Mendebaldeko Sahara barnebiltzen duen, legez kanpoko izango dela, EUko Justizia Auzitegiaren epaia ez errespetatzeagatik. Eta hargatik, akordio horren kontra gauzatzen diren kanpaineekin bat egiten dugu, Marokok ez duelako subiranotasunik Mendebaldeko Sahararen gainean.

SALATZEN DUGU, Marokoko Erreinoa eta Europar Batasunaren arteko arrantza akordio horren onarpena, Europako Parlamentuak otsailaren 13an onartua, eta Mendebaldeko Sahara barnebiltzen duena, akordioa Herri Sahararraren eta haren bidezko ordezkari den Fronte Polisarioaren onarpenik gabe eginagatik.

ESKATZEN DUGU Nazio Batuen partez Mendebaldeko Saharako gatazkaren irtenbide justu eta behin-betikoa lehenbailehen bideratu dezala. Irtenbide hori, ezinbestez, Herri Sahararraren autodeterminazio eskubidea erreferendum bitartez gauzatzetik pasa beharko da. Eta NBE-ren Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Errelatore bat izendatzeko.

BERRIZ ESKATZEN DUGU, Mendebaldeko Saharako egoera larriaren aurrean, MINUSOak haren funtzioak handitu ditzan. Hargatik, Nazio Batuei eskatzen diegu MINURSOari saharar biztanleen giza eskubideen zaintza eta ikuskaritza eskuduntza eman diezaion lurralde okupatueta.

EXIJITZEN DIOGU Europar Batasunari, Marokoko Erreinuarekin duen Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideen errespetuari dagokion klausula gauzatu dezan.

INDARTZEN DUGU gure lankidetzak Emakume Sahararren Batasun Nazionalarekin (UNMS), hark errefuxiatuen kanpamentuetan gauzatzen duen berebiziko lanagatik. Era berean, emakumeen giza eskubideen urraketa eta ikusezintasunaren gainean arreta deitzen dugu, bereziki lurralde okupatueta desagertutako emakumeen gainekoa.

ESKATZEN diegu, euskal erakundeei, elkartasun laguntza eta laguntza humanitarioa indartzea, bai Tindufeko saharar errefuxiatu kanpamentuekin, zein lurralde okupatutako biztanleekin.

ADIERAZTEN DUGU, SEADen 43. urteurrenaren ospakizunak direla eta, euskal erakunde ezberdinek Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetara bidaia egingo dutela, Herri Saharrekiko konpromisoa berresteko.

Estatu Espainiarrak Mendebaldeko Saharari dagokionez duen arduraren jakitun izanda, Espainiako Estatuari hurrengoa eskatzen diogu:

- Marokoko Erreinuari Mendebaldeko Saharan giza eskubideak errespetatu ditzan exijitzeko, eta baita biztanle sahararren kontrako indarkeria bertan behera utzi dezan. Horrenbestez, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren baitan MINURSOak Mendebaldeko Saharan giza eskubideen ikuskaritza eta babesa gauzatzeko eskuduntza izan dezan lan egiteko eskatzen diogu.
- Saharar biztanleen giza eskubideak errespetatzeko exijitu dezan, Ginebrako Giza Eskubideen Kontseiluko kide izango den heinean, 2018-2020 aldian.
- Fronte Polisarioari estatus diplomatikoko ordezkaritza aitortzeko, Herri Sahararraren ordezkari zilegi bakarra den heinean, NBEak hala onartuta. SEAD-a onartu dezala, horrenbestez.
- Biztanle sahararrekin duen lankidetzeta eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatu kanpamentuetan zein lurralde okupatueta, izan ere AECID-aren laguntzak azken urteetan murriztu baitira. Horretaz gain, Mendebaldeko Saharara bideratutako Europako Fondoen areagotzea eskatu dezala.

Azkenik, euskal gizarteari dagokionez, hurrengoa adierazten dugu:

ESKATZEN DIEGU, komunikabideei, Mendebaldeko Saharako gatazka duen garrantziarekin landu dezatela, gizarteak ematen dion garrantzi berarekin, alegia. Eta elkartasuna adierazi nahi duten pertsonen Mendebaldeko Saharako egoeraren berri sare sozialetan eman dezaten animatzen ditugu.

AINZAKOTZAT HARTZEN DUGU RASD-telebista, Saharar Irrati Nazionala, Saharar Berri Agentzia eta zonaldean lan egiten duten beste komunikabideek duten garrantzia, bereziki, lurralde okupatueta, Herri Sahararraren egoera eta haren helburu zilegiak zabalduz.

ADIERAZTEN DIEGU, elkartasun elkarte eta kolektiboek, gure esker ona, haiek, egunerokoan lan egiten baitute Herri Sahararrarekiko laguntasunak bultzatuta, helburu bakarra senidetutako herri horren askatasunezko etorkizuna lortzea izanda.

AITORTZEN DUGU haurren udako harrerarako Oporrak Bakean programaren berebiziko garrantzia, familia saharar eta euskaldunen arteko elkartasunaren eta maitasunaren adierazpen handiena.

Erakunde-adierazpen hau hurrengoetara bidaltzea proposatzen dizuegu:

-Nazio Batuetako Idazkari Nagusia.

- Ginebrako Giza Eskubideen Batzordea.
- Horst Kohler Jauna, NBEko Mendebaldeko Saharako ordezkari berezia
- Europar Batzordea
- Espainiako Estatua
- Espainiako Errege Etxea
- Fronte Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritza
- Marokoko Gobernua